



II. ATALA
BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

Basauriko Udala

Hasierako onespena ematea Basauriko HAPOaren barruko AI-02 jarduketa integraturako hirigintzako jarduketa-programari.

Alkateak, azaroaren 17ko 4001/2023 Dekretuaren bidez, hasierako onespena eman zion Basauriko HAPOaren barruko AI-02 jarduketa integraturako hirigintzako jarduketa-programari. Dekretu horrek zera xedatzen du:

Lehenengoa: Hasierako onespena ematea Basauriko HAPOaren barruko AI-02 jarduketa integraturako hirigintzako jarduketa-programari.

Bigarrena: Horri buruzko iragarkia jartzea Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, eta hogeit eguneko epea ezartzea, egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko Era berean, informazioa interesdunen esku jartzea Udalaren egoitza elektronikoa (helbidea: <https://www.basauri.eus>).

Hirugarrena: Jarduketak eragindako ondasun eta eskubideen titularrei jakinaraztea, ezarritako epean zehar egoki iritzitako alegazioak aurkezteko aukera izan dezaten.

Basaurin, 2023ko azaroaren 20an.—Alkatea, Asier Irigorri Basaguren